



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoak 12

Vitoria-Gasteiz, 12 de marzo de 2019

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK AURTENGO AURREIKUSITA DAGOEN URTEKO ARAUGINTZA PLANA ONARTU DU

- **Plana Euskadi.eus gardentasun eta parte hartze atarian argitaratuko da, herritarren informazioa, lankidetzaz eta parte hartzea bermatzeko**

Jaurlaritzaren Kontseiluak argi berdea eman dio gaurko bileran aurtengo Urteko Araugintza Planari. Planak jasotzen ditu 2019an zehar Jaurlaritzako sail bakoitzak aurkeztea espero dituen ekimen arautzaileak (Lege-aurreproiektuak eta dekretuak).

Gaur hartutako erabakia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotakoaren esparrukoa da; eta horren arabera, Eusko Jaurlaritzak Urteko Araugintza Plana argitaratuko du eta bertan jasoko dira hurrengo urtean onartzeko eramango diren legezko edo arauzko ekimenak.

Plana onartu ondoren, **Euskadi.eus** gardentasun eta parte hartze atarian argitaratuko da, herritarren informazioa, lankidetzaz eta beharrezko parte hartzea bermatzeko asmoz.

2019ko URTEKO ARAUGINTZA PLANA

1. LEHENDAKARITZA

- EAEko kultu-leku edo-zentroi eta erlijio-aniztasunari buruzko lege-aurreproiektua
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako Legea aldatzeko den lege-aurreproiektua
- 12/2019 Dekretua, urtarrilaren 29koa, Kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko bekak arautzen dituenak.
- Motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko prozedura garatzen duen dekretu proiektua
- Atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsonen laguntzeko, euskal etxeei emango zaizkien dirulaguntzak arautzeko dekretua aldatzeko den dekretu proiektua
- Horizonte 2020 Europako Ikerketa Esparru Programaren bigarren fasean, Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareko Kide diren agenteek ikerketa proiektuak aurkez ditzaten, diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu proiektua
- Nazioarteko bazkide estrategikoen sareko eskualdeekin lankidetzaz tekniko proiektuei emango zaizkien diru-laguntzak arautzeko den dekretu-proiektua.

- Euskadi Basque Country Laguna erakunde-aitorpena eratzeko eta arautzeko dekretu-proiektua
- Ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzak erregulatzen dituen dekretu-proiektua.

2. GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

- Lege-proiektua, euskal enplegu publikoari buruzkoa
- Lege- proiektua, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoa
- Dekretu-proiektua, Euskadiko toki erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa
- Dekretu-proiektua, bikoiztasun-txostena izapidetzeko prozedura arautzen duena, Euskadiko toki erakundeetarako buruzko 2/ 2016 Legearen 16. artikulua garatuz
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Erakundearen Erregistroa arautzen duena
- Dekretu-proiektua, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioetako langileei buruzko araudia ezartzen duena
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Fundazioen Erregelamendua onesteko Dena
- Dekretu-proiektua, kargu publikodunen betebeharrari eta eskubideei buruzko azaroaren 15eko 156/ 2016 Dekretua aldatzeko dena
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez onartzen den 2019 urteko Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen katalogo eguneratua
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko informazioaren eta komunikazioaren teknologien kudeaketa-eredua arautzen duena

3. EKONOMIAREN GARAPENA ETA AZPIEGITURAK

- Mugikortasun jasangarriaren legearen aurreproiektua.
- Lege aurreproiektua, apirilaren 8ko Landa Ingurunearen Garapenaren 10/1998 Legea aldatzekoa.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez arautzen baitira ikertzaile eta teknologoei nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektoreko zientzia-, teknologia- eta enpresa-ingurunean prestakuntza emateko laguntzak.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan urpeko jarduerak eta urpekaritzako lanbide-jarduera baimendu eta kontrolatzeko baldintzak ezartzen dituena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta arrantza-sektoreetako ikerketa, garapen eta berrikuntzarako laguntzei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, EAEn txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 Dekretua aldatzekoa.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasoko eta ur kontinentaletako turismo-arrantzari, arrantzako eta akuikulturako turismoari eta arrantza-erakustaldiei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko planei laguntzeko europar batasunak emandako neurriak EAEn garatzeko eta aplikatzeko (GK 2019/02/26).
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ordaintzeko Erakundea osatzen duen dekretuaren bigarren aldaketa egiteko dena.
- Dekretu-proiektua, nekazaritza sektoreko zerbitzuak eskaintzen dituzten aldi baterako langileentzako ostatuak sortzeko, egokitze edo hornitzeko laguntzak emateko dena.

- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen efizientzia energetikoaren ziurtapenaren, ziurtagirien kontrolaren eta haien erregistroaren gainekoa (GK 2019/02/26).
- Dekretu-proiektua, kanalizatutako gasaren zerbitzu publikoaren instalazioei baimena eman eta horiek jardunean jartzeari buruzko ekainaren 9ko 107/1998 Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Segurtasun Industrialari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Industria Segurtasuneko eta Meategietako gaietan trebatzeko banakako karnetak, baimendutako enpresak eta aitortutako erakundeak arautzeko dena.
- Dekretu-proiektua, energia produkitzeko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio baimenen prozedura arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, gasa garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio baimenen prozedura arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Energiaren Jasangarritasun Legea garatzen duena.
- Dekretu-proiektua, energiaaren informazioa eta gardentasunari buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, Energia autokudeari buruzkoa.
- Ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren aldaketa, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko Agenteen berrantolatze eta eguneratzeko dena.
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez indargabetzen baita ekainaren 6ko 104/2000 Dekretua, Zumalakarregiko igogailuaren ustiapena Euskotreni esleitzen diona (GK 2019/02/26).
- Dekretu-proiektua, 2018ko abenduan Estatuko Administrazio Orokorraren eskutik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrera transferitutako Basurtuko Ospitalea-Ariz eta Irauregi-Lutxana-Barakaldoko trenbide azpiegiturak kudeatzea, *Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari* kudeaketa-gomendioa egiteko.
- Bigarren Dekretuaren proiektua, 2018ko abenduan Estatuko Administrazio Orokorraren eskutik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrera transferitutako Basurtuko Ospitaleko trenbide azpiegiturak kudeatzea, Recalde-Irala azpiegitura lurperatu berrian, ADIFek Bilboko Ría 2000eri kudeaketa-gomendioa egindakoa, *Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari* kudeaketa-gomendioa egiteko.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako gidaridun ibilgailuak alokatzeko zerbitzuak eragiketa-neurriak erregulatzeko.
- Dekretu-proiektua, Itsas Garraioko Operadoreen Erregistroarena Dekretu-proiektua, Itsas garraioa erregulatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, itsas garraioa erregulatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Kirol Portua zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren estatutuak onartzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko dekretuaren bigarren aldaketa

4. ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK

- Gazteriaren Euskal Legearen proiektua.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea aldatzeko lege-proiektua.
- Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteari buruzko otsailaren 18ko 3/2005 Legea bigarren aldiz aldatzeko lege- proiektua.

- Desgaitasunen bat duten pertsonen enplegu-programa arautzen dituen dekretuaren proiektua eta Euskadiko Enplegu Zentro Berezien erregistroa, inskripzioa eta kalifikazioa arautzen dituena.
- Haur eta Gazteen Aisialdirako Hezitzaileak Trebatzeko Eskolak eta Haur eta Gazteen Aisialdi Jardueretarako Begirale eta Zuzendariak Trebatzeko Ikastaroak izendapen ofizialez onartzeko eta bertan parte hartzeko moduari buruzko, azaroaren 2ko 419/1994 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Adinekoentzako egoitza-zentroen dekretu-proiektua.
- Euskal Autonomia Erkidegoko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautzen dituen dekretu-proiektua.
- Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen eroldari buruzko, dekretu-proiektua.
- Gizarte itunari buruzko dekretu-proiektua.
- Telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko, ekainaren 28ko 144/2011 dekretua aldatzeko dekretu-proiektua.
- Arreta goiztiarraren arloko lanbide-kualifikazioa egiaztatzeko balio duten tituluen, ikasketen eta lanbide-gaitasunen katalogoari buruzko 13/2016 Dekretuaren dekretu-proiektua
- Lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen dekretu-proiektua.

5. INGURUMENA, LURRALDE PLANGITZA ETA ETXEBIZITZA

- Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko Lege aurreproiektua
- Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko Lege aurreproiektua
- Etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko Dekretua
- Kreditu-erakundeekin 2018-2020 bitartean finantza-lankidetzan aritzeko Dekretua
- Arkuko labe elektrikoen zepen erabilpena arautzeko Dekretua
- EAEko lurzoru kutsatuei buruzko 4/2015 Legea garatzeko Dekretua
- Urdaibaiko Biosfera Erreserbako baso ustiatzearen titularrak ekonomikoki konpentsatzeko diru-laguntza-sistema bat onartzeko Dekretua
- Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako ASAP bitartekaritza programa (alokairu segurua, arrazoizko prezioa) arautzen duen Dekretua
- Jenderik gabeko etxebizitza arautzeko eta neurri batzuk ezartzeko den Dekretua horrelako etxebizitzak benetan okupatu eta bere funtzio soziala bete dezaten
- Euskal autonomia erkidegoko sektore publikoko kartografia eta informazio geografikoa antolatzeke Dekretua

6. OGASUNA ETA EKONOMIA

- 2019ko Presazko aurrekontu-neurriari buruzko legearen aurreproiektua
- 1/2019 Legea, otsailaren 14koa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriari buruzkoa.
- 2/2019 Legea, otsailaren 14koa, lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriari eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzkoa.
- 3/2019 Legea, otsailaren 14koa, hezkuntza alorrean 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriari buruzkoa.
- Ekarpunen Lege-aurreproiektua
- Laguntzen Araubidea arautzen duen Lege-aurreproiektua
- Dekretu-proiektua, Euskadiko ondareari buruzko legearen testu bategina garatzeko.

- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketari buruzko Erregelamendua onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoak aseguru pribatuen bitartekaritza arloan dituen eskumenak arautzen dituena.
- 15/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, 2019ko ekitaldirako zorpetze-eragiketak egitea erabaki eta baimentzen duena.
- Dekretu-proiektua, 2019ko Urteko Estatistika Programa erabakitzen duena.

7. HEZKUNTZA

- Hezkuntza legearen aurreproiektua
- Dekretua, otsailaren 12koa, zeinaren bidez onartzeko baita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako irakasle-kidegoetako –maisua-maistren kidegoetako izan ezik– lan-legepeko eta funtzionario diren irakasleentzat gordetako lanpostuen zerrenda.
- 11/2019 Dekretua, urtarrilaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan emango diren Oinarrizko Lanbide Heziketako 7 tituluri dagozkien curriculumak ezartzen dituena
- Dekretu-proiektua, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarriko ordainsari osagarriari buruzkoa
- Dekretu-proiektua, unibertsitatez kanpoko erregimen orokorreko zein erregimen bereziko irakaskuntza arautuak emateko ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezartzen duena (arte eta kirol irakaskuntzak)
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko arte-irakaskuntza ez arautuen zentroak sortzeko eta funtzionatzeko oinarrizko arauak ezartzen dituena
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratudun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duen uztailaren 4ko 186/2017 Dekretua.
- Dekretu-proiektua, unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lanpostuak betetzeko dena
- Apirilaren 3ko 7/2012, dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko dena
- Maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretua aldatzen duen dekretu-proiektua. 73/2012 dekretu hori, hain zuzen, atzerriko hizkuntzen titulu eta ziurtagiriei buruzkoa da, euskal autonomia erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasunaren betekizunak ezartzen dituena
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailburuarena, Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikasketen antolaketa, berariazko curriculumak eta haren ebaluazioa Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza horiek emateko baimendutako ikastetxeetan ezartzen duena
- Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzen ezarpena eta irakaskuntza horietako oinarrizko A1 mailaren, oinarrizko A2 mailaren, tarteko B1 mailaren, tarteko B2 mailaren, C1 maila aurreratuaren eta C2 maila aurreratuaren curriculumarena helburu duen dekretu-proiektua
- Dekretu-proiektua, Euskal Autonomi Elkartearen Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegien (Ingurugela) lanpostuen zerrenda onartzen duen otsailaren 13ko 28/2001 Dekretua aldatzen duena
- Dekretu-proiektua Hizkuntza Normalizazioko Ulibarri programa arautzen duena.

- Dekretu-proiektua, Hezkuntza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen Dekretua eta HABEren arau organikoak onartzen dituen Dekretua aldatzen dituena
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailburuarena, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde-zentroen lanpostuen zerrenda arautzen duena
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailburuarena, Ikusteko desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusionarako baliabide-zentroen lanpostuen zerrenda arautzen duena
- Dekretu-proiektua, Hezkuntza sailburuarena, hezkuntza inklusiboaren esparruan aniztasunari ematen zaion erantzuna arautzen duena
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez azaroaren 10eko 211/2015 Dekretuaren eranskina aldatzen duena, lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzarako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-kompetentziak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura eta antolamendua ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan
- Dekretu-proiektua, Lanbide Heziketari Aplikatutako Ikerketa eta Berrikuntzako Euskal Autonomia Erkidegoko Zentroa (TKNIKA) sortzen eta zentroko lanpostuen zerrenda onartzen duen Dekretua aldatzen duena
- Dekretu-proiektua, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko diru-laguntzak arautzen dituena (azaroaren 27ko 248/2012 Dekretua aldatzen duena, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko diru-laguntzak arautzen dituena)
- Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren dekretu-proiektua.
- Dekretu-proiektua, Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorena sortzen duena
- Dekretu-proiektua, Talentuaren Euskal Institutua sortzen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena.
- Dekretu-proiektua, Etorkizuneko Ikasketen Euskal Institutua sortzen eta lanpostuen zerrenda onartzen duena
- Dekretu-proiektua, Ikaskuntza Aurreratuen eta Digitalizatuen Lanbide Heziketako Zentro Integratua sortzen duena
- Dekretu-proiektua, lanbide-heziketako eredu konbinatuan espezializatutako ikastetxeak sortzeko dena
- Dekretu-proiektua, zeinaren bidez aldatu egiten baita Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari – garraioaren arloan eskumenak dituen sailak finantzatutakoari– buruzko Dekretua
- Dekretu-proiektua, unibertsitateaz kanpoko Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI) sorkuntza arautzen duen Dekretua aldatzen duena

8. OSASUNA

- Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko adineko pertsonentzako egoitzetako farmazia-zerbitzuei eta sendagai-biltegiei buruzkoa.
- 16/2019 Dekretua, otsailaren 5ekoa, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita Euskadiko osasun-sistemako langileek agindutako tratamendu medikoak betetzea errazteko laguntzak arautzen dituen Dekretua.
- Dekretua, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan profesionalak askatasunez hautatzekoari buruzkoa.
- Osasun-profesionalen Informazio-sistemari buruzko 153/2011 Dekretua aldatzea.
- Dekretua, Erizaingo langileen preskripzioari buruzkoa.
- Osasun Sailak osasun-zerbitzuak ituntzeko oinarriak ezartzen dituen 77/1997 Dekretua aldatzea.
- Kontsumo publikokoak diren uren kalitatearen kontrol-, zaintza- eta informazio-sistema arautzen duen 178/2002 dekretua aldatzea.

- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legean aurreikusitako adikzioen arloko sariak eta aintzatespenak arautzen dituen dekretua.
- Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legean aurreikusitako debekuen kartelen ezaugarri teknikoak arautzen dituen dekretua.
- Osasun Sailari atxikitako Aholku Batzordeen araubideari buruzko 121/2005 dekretua aldatzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoaren Batzorde Etikoa sortzen duen dekretua aldatzea.
- Erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa onartzen duen 32/2003 Dekretua aldatzea.
- 69/2011 dekretua aldatzea, Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluarena.

9. TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

- Dekretu-proiektua, 2012ko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretua, bidaia-agentziei buruzkoa, bigarren aldatzeko dena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordea arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Enpresa eta Jarduera Turistikoaren Erregistroa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Turismo Mahaia sortzen duen Dekretua aldatzen duena. Dekretu-proiektua, hotel-establezimenduei buruzkoa.
- Dekretu-proiektua, turismo-gidari zerbitzua gaitzeko.
- Dekretu-proiektua, landa-ingurunean turistek ostatu emateko establezimenduak arautzen dituen dekretua aldatzen duena.

10. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA

- Agirien kudeaketa integralerako lege-egitasmoa
- Lege Gordailuaren Dekretua
- Euskararen Aholku Batzordeari buruzko urriaren 16ko 176/2007 Dekretua berritzeko Dekretua
- Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen 82/2017 Dekretua aldatzeko Dekretua

11. SEGURTASUNA

- 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.
- 18/2018 Dekretua, otsailaren 5koa, Ertzaintzako funtzionarioen ordezkari sindikalen hauteskundeak, Ertzaintzako Kontseiluaren osaketa eta erakunde sindikalei dagozkien ordezkariak hautatzeko bidea arautzen dituen dekretua bigarren aldiz aldatzeko dena.
- 21/2019 Dekretua, otsailaren 12koa, zeinaren bidez bigarren aldiz aldatzen baita larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituen Dekretua.
- Dekretu-proiektua, herritarrek Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemari duten borondatezko parte-hartzeari buruzko Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Jokoaren Erregelamendu Orokorra zati batean aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretua aldatzen duena.

- Dekretu-proiektua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako udalen eta hauteskunde-administrazioaren funtzionamendu- eta pertsonal-gastuak arautzen dituen Dekretua aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, Euskadiko Poliziaren Datuak Prestatzeko Zentroari Buruzko Dekretua aldatzen duena

12. LANA ETA JUSTIZIA

- 3/2019 Dekretua, urtarrilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Elkarrizketa Sozialaren Mahaia sortzekoa.
- Dekretu-proiektua, 207/2008 Dekretua, abenduaren 9koa, Euskadiko Lan Autonomoko Elkarteen Erregistro Berezia eratu eta arautzen duena aldatzen duena.
- Dekretu-proiektua, EAEn prebentzio sistemako laneko medikuntzaren diziplina prebentiboari buruzko auditoria edo kanpo ebaluazioa egiteko prebentzioko zerbitzuek edo baimendutako erakunde espezializatuek bete beharreko jarduera sanitarioa arautzen duena.
- Dekretu-proiektua, 84/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena aldatzen duena

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 435,9 M BIDERATUKO DITU EUSKAL ENPRESAREN LEHIAKORTASUNA ETA EUSKADIKO EKONOMIA PRODUKTIBOA HOBETZEKO

- **Egungo eta etorkizuneko estrategiak bultzatzeko programa berriak:**
 - **Hazinnova. 2,5 M euro PYMEetan berrikuntzarako**
 - **Renove 4.0 Plana. 4 M euro makineria industrialia berritzeko**
 - **Autoetarako Renove Plana. 5M gutxiago kutsatzen duten autoak errepideratzeko**
 - **INDARTU gehikuntza. 12 M Ezkerraldea eta Oarsoaldea bezalako guneetan enplegua eta industria bultzatzeko**
- **Sailak laguntza-plana osatu du, bere sozietate publikoek kudeatutako programen bidez. SPRIk 33,4 M-ko dirulaguntzak aurreikusten ditu eta EEEK 18,5 M-ko deialdia egingo du**

Gobernu Kontseiluak, gaur, 2019rako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa onartu du.

2019rako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Diru Laguntzen Plan Estrategikoa 81 jardunbiderekin eta 384 milioi euro baino gehiagorekin abiatzen da (384.034.407 €):

- Teknologia-arloa: 9 jardunbide. 185.161.067 euro
- Industria-arloa: 4 jardunbide. 44.968.000 euro
- Nekazaritza-arloa: 48 jardunbide. 110.893.176 euro
- Garraio-arloa: 20 jardunbide. 43.012.164 euro

Sail honek diru-laguntzak emateko, Plan horretan finkatutakoa bete beharko da eta, edozein kasutan, une bakoitzean aurrekontuak uzten dizkion aukerak hartuko dira kontuan.

Plana Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren politiken plangintza-tresna gisa konfiguratu da, Euskadi 2020 Gobernu Programaren konpromisoen barruan. Plan hau lantzeko, programa horretan eta existitzen diren diruz lagundu daitezkeen programetan zehaztutako interes publikoak aztertu dira, eta Plana indarrean egon den epean eskuragarri zeuden baliabideekin alderatu da. Era horretan, eraginkortasun- eta efizientzia-mailak handitzea bermatzen da, baita jarduketetan gardentasuna indartzea ere.

Plan honetan, laburpen gisa, babestu beharreko programak gauzatzeko aurreikusitako kostuen datu globalak identifikatu dira, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura egituratzen den antolakuntza-unitateekin lotuta.

Azkenean Planean, programa bakoitzerako, fitxa bat egiten da. Fitxa horretan, programaren helburuak, ekintzak eta adierazleak —aurreikusitako denbora-egoerari loturik—, zein sektoreri zuzenduta dagoen, diru-laguntzak emateko prozedura, beharrezko aurrekontu-konpromisoak eta finantziazio publikoko ehunekoa biltzen dira.

2020ko lehen hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 49.8. artikularen arabera egiten den diruz lagundu daitezkeen programen ebaluazioaren esparruan, Planaren betetze-maila ebaluatuko da. Egindako balioespenak hurrengo diru-laguntzen plan estrategikoa egiteko oinarri gisa balio beharko du.

Planaren ardatz eta erronka estrategiko nagusiak:

- Hazkuntza sendoa, enplegu iraunkor gehiago eta hobearekin
- Europaren helburuekin bat datorren energia-estrategia bat
- Eskualde ahulak suspertzea
- Enpresa-nazioartekotzea
- Lehen sektore errentagarria, berritzailea eta lehiakorra
- Mugikortasun iraunkorra eta garraio publikoa
- Garapen iraunkorrerako azpiegiturak

Helburuak ezartzeko eta lortzeko, Planak ondorengo kategoria hauetan taldekatutako hainbat tresna ditu:

- Gaikuntza teknologikoa eta enpresaren arloko I+G sustatzea
- Enpresa-berrikuntzaren ekosistema babestea
- Gaitasunak bateratzea eta lankidetzaren arloan I+G+B sustatzea
- Gaitasun zientifiko-teknologikoak sortzea
- Zientzia-, teknologia- eta enpresa-arloetan talentua kudeatzea
- I+G+Bko sistema zabaltzea eta nazioartekotzea

SPRIk eta EEEK laguntza horiek beste 51,9 M gehiagorekin osatzen dituzte

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak markatutako estrategiarekin bat etorriz, atxikitako sozietate publikoek industria eta efizientzia energetikoa hobetzeko eta berriztagarriak sustatzeko dirulaguntzak osatu dituzte.

Spri Taldeak 15 laguntza-programa aurreikusten ditu, 33,4 M-an, berrikuntza ez-teknologikorako, nazioartekotzerako, 4.0 industriarako, digitalizazioa eta zibersegurtasuna kontzeptu nagusi izanik, bai eta Renove Industrialdea eta Renove Makineria programak ere.

Bestalde, Energiaren Euskal Erakundea ere Sailari atxikita dago, eta 18,5 M euroko laguntzak deituko ditu, eraginkortasun energetikoko inbertsioetarako, berriztagarrien instalaziorako eta mugikortasun jasangarrirako laguntzetarako.

Enplegua eta Gizarte Politikak

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAK ETA SECOT- ENPRESAKO SENIOR BOLUNTARIOTZAK ERRETIRORAKO TRANSIZIOA SUSTATU ETA BOLUNTARIOTZA BULTZATUKO DUTE

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak hala proposatuta, Gobernu Kontseiluak, gaur, Artolazabalek zuzentzen duen sailak eta **Secotek**, enpresa-aholkularitzako senior boluntariotza batzen duen elkarteak, laster lankidetzako protokolo orokorra sinatzea onetsi du. Protokolo horren bidez, **erretirorako trantsizioarekin eta** egoera horretatik hurbil dauden pertsonen artean **boluntariotza bultzatzearekin zerikusia duten jarduketan garapena sustatu eta bultzatuko da.**

Beatriz Artolazabal sailburuaren iritziz, interesgarria da Secoten eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzak, zahartze aktiboarekin eta dagoeneko erretiratuta dauden pertsonen arteko boluntariotzarekin zerikusia duten gaiak aztertzeke; izan ere, Secotek sustatzen dituen ekintzak bat datoz **2015-2020rako Zahartze Aktiboaren Estrategian eta 2017-2020rako Boluntariotzaren Euskal Estrategian** jaso direnekin.

Protokolo horren bitartez, esperientziak eta tresnak trukatu dira eta bien intereseko proiektuak garatu dira. Protokolo orokor horrek sinatzen denetik aurrera izango ditu ondorioak, eta urtebeteko indarraldia izango du. Dena den, aldeek, biek adostuta, urteko luzapena adostu ahalko dute, gehienez beste bi urtez.

Ogasun eta Ekonomia

2019AN KREDITU KONTUAK GAUZATZEKO BAIMENA EMATEN DUEN AKORDIO PROPOSAMENA

Gobernu Kontseiluak, aurreko urteetan bezala, Euskadiko Finantzei buruzko azaroaren 8ko 8/1996 Legean aurreikusitakoa betez, kreditu eragiketak gauzatzea baimendu du, kreditu kontu gisa.

Kreditu eragiketak urtean zehar gauzatuko dira eta, aurreko urteetan bezala, 800 milioi euroko zenbateko osoa izango dute.

Hezkuntza

EUSKO JAURLARITZAK 2019-2022 UNIBERTSITATE SISTEMAREN PLANA ONARTU DU

Cristina Uriarte Hezkuntzako sailburuak eskatuta,, Gobernu Kontseiluak 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Plana onartu du. Unibertsitate-plana da Euskal Unibertsitate Sistema antolatzeneko Eusko Jaurlaritzak berriaz onartutako tresna.

Hezkuntza Sailak, hala, betetzat jo du Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi honetarako zuen plan estrategikoetako bat. Herrialde aurreratu orok behar du bikaintasunezko unibertsitate-sistema bat. Hori dela eta, Hezkuntza Sailak Euskal Unibertsitate Sistemak datozen urteetako bilakaerarako oinarri estrategikoak zehaztu ditu. Plan berriak “Unibertsitate Sistemaren Plana” izena hartu du, aurreko Unibertsitate Planarekin alderatuta. Ñabardura hori garrantzitsua da, unibertsitate guztientzako estrategia eta helburu partekatuei bultzada ematea baitu helburu. Plan horrek unibertsitate bakoitzaren plan estrategikoen koordinazioa sustatuko du.

2019-2022 aldirako Unibertsitate Sistemaren Planak ebaluatu ditu aurreko Unibertsitate Plana (aurrekontuaren % 99 exekutatu da), unibertsitate-irakaskuntzaren egoera, eta garapenean eragingo duten ingurune-elementu zenbait (horiek aztertzea ezinbestekoa da Euskal Unibertsitate Sistemaren egoera ezagutzeko). Azterlan horrek beharizanak zehaztu, garatu beharreko estrategia definitu eta datozen urteetan Euskal Unibertsitate Sistemako pare diren unibertsitateek egin beharreko ekintza nagusiak ezartzeko aukera eman du. Planaren helburua da Euskal Unibertsitate Ekosistemako eragileen artean koordinazio handiagoa eta hobe sustatzea. Eragile hauen artean, alegia: unibertsitateak, BERC guneak, Ikerbasque, Unibasq, 4Gune eta Euskampus.

2019-2022 aldirako Unibertsitate Sistemaren Planak 1.411 milioi euroko partida ekonomikoa aurreikusten du, hau da, aurreko Plana baino 124 milioi euro gehiago (+% 9,6). Partida hori finantziario-beharrizanei erantzuteko bideratuko da, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak bere helburuekin eta kalitatearen hobekuntzarekin betetzeko nahikoa finantziario bermatzeko, baita Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate guztientzako ezarritako helburuak lortzeko finantziario eskaintzeko ere. Bultzada ekonomiko horri esker, hainbat jardueren artean, Medikuntza Fakultate berria eraikiko da, I+G+b inbertsioa % 5 haziko da (ikerkuntzara bideratutako urteko hazkundearen konpromisoa betetzeko), Unibertsitate Prestakuntza Dualean ahalegin handiagoa egingo da, Ikerbasquen bidez talentua bereganatzea indartuko da edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen eragile ezberdinen arteko lankidetzak sustatuko da.

2019-2022 aldirako Unibertsitate Sistemaren Plana zehaztuta, Hezkuntza Sailak, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzaren bidez, lehentasunezko ikerketa alor edo ikasgaiak zehaztu ditu, Euskadirentzat duten interes estrategikoagatik, edo interes zientifiko, artistiko edo sozialagatik; berariazko kontratu-programa bidez finantzatuko dira.

Unibertsitate Sistemaren Plan berriak bost ardatz nagusi barne hartzen ditu, eta horien bidez beteko dira bildutako ekintza guztiak:

- Bikaintasun-ikerkuntzaren ardatza. Garapen-ardatz honen helburua da Euskal Unibertsitate Sistema testuinguru globalean kokatu eta indartzeko funtsezko ardatz izatea. Unibertsitateek, talentu zientifikoak eta ikerketa-jarduera sortzeko beharrei erantzuna ematea ahalbidetuko duten ekintzak planifikatuko eta definituko dituzte.
- Unibertsitatea+Enpresa ardatza. Ardatz honek Unibertsitate+Enpresa eta unibertsitatea-gizartea harremanak jorratzen ditu, unibertsitateek Euskadiren aurrerabide eta eraldaketaren alde egiten duten ahalegina bideratzeko trakzio-indar gisa eta horien beharrezanez erantzuteko. Era berean, Euskal Unibertsitate Sistemako titulatu enpleagagarritasuna hobetzea ere badu helburu –betiere jaso duten prestakuntzarekin bat datozen postuetan-, formazioa eta talentua sortzea gidatuko duen elementu gisa.
- Irakaskuntza prestakuntza eta metodologia berritzaileak ardatza. Ardatz hori euskal unibertsitatearen erreferentzia-marko indartsu eta berritzailea garatzearekin lotuta dago, horren plangintza, eduki eta inplementazioari dagokienez.
- Nazioartekotze ardatza. Unibertsitatearen xede guztietara hedatzen den prozesu gisa ulertzen da, zeharkakotasunez, baita unibertsitate-sistemaren bidez gure gizartea beste gizarteekin harremantzea sustatzeko bide gisa ere. Ikuspegi horretan, bereziki nabarmentzekoa da bikaintasun-ikerkuntzaren funtzioa, nazioarteko ikuspegiari erantzuten baitio, tokiko testuinguruan sakonki errotuta.
- Unibertsitate Komunitatea ardatza. Hainbat mugarri lortzeko helburua du, esku hartzeko hiru eremutan zehaztuta: genero-berdintasuna sustatzea (soldata arrakalaren kontrako borrokara edo emakumeen artean bokazio zientifikoak sustatzera bideratutako ekintzekin, adibidez), euskararen erabilera hedatzea eta ekitatea.

5 ardatz horiek Europa mailan ezarritako lehentasunezko jarduteko ildoak dagozkie. Europako Batzordeak Unibertsitate Sistemaren Plana diseinatzeko fasean lagundu du, eta horrek azaleratzen du Eusko Jaurlaritzak Europako politika partekatuekin duen konpromisoa, baita unibertsitate alorrean ere. Unibertsitate Sistemaren hobekuntza globala da, eta hainbat helburu zehatz lortzeko oinarria, honako hauek lortzeko, esaterako:

- Prestakuntza dualeko titulazio ofizialean izena eman duten ikasle kopurua haztea, 471tik 1.750era pasatzea.
- Unibertsitateetara atxikitako Ikerbasque ikertzaile kopurua % 25 haztea.
- STEM titulazioetan izena emandako ikasle guztien arteko emakumeak % 32,5etik % 52ra pasatzea.
- Irakasle ikertzaile elebidunak % 52tik % 60ra igotzea.

- Docentian (irakaskuntza berritzailearen eredu ofizialean) akreditatutako langileak % 29,1etik % 45,3ra igotzea.
- Euskal Unibertsitate Sistemak sortutako enpresetan kualifikazio altuko lanpostuak % 25 haztea.
- Argitalpen zientifikoak % 17 haztea.

Plan hau duela urtebete hasi zen osatzen. Planak jasotzen duen berritasun nagusietako bat, Unibertsitatea+Enpresa ardatza, 2017ko ekainean abiatu zen, Lehendakariak berak aurkeztu baitzuen estrategia. Orduetik hona, eta UPV/EHUrekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin koordinatuta, gaur Gobernu Kontseiluan onartu den Plana zehaztu da.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAREN ETA GASTEIZKO UDALAREN ARTEKO ASMO PROTOKOLOA, ELKARBIZITZAN ETA EKITATEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZAREN ALDE ELKARLANEAN JARDUTEKO

Hezkuntza Sailburuak Gobernu Kontseiluari gaurko bileran helarazi dio Hezkuntza Sailaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren artean onartutako asmo protokoloa, elkarbizitzan eta ekitatean oinarritutako hezkuntzaren alde elkarlanean jarduteko.

Gero eta anitzagoa den gure gizarte honek erronka berriak ditu aurrean, eta erronka horiek eragin handia dute hezkuntzan. Horren ondorioz, erakunde guztion ahaleginak bateratu behar ditugu ekintza politiko koordinatu eta berritzaile baten bidez ahalik eta erantzunik onena eman diezaiozun elkarbizitzan eta ekitatean oinarritutako hezkuntzari.

Elkarlanean jarduteko sistema honen helburu nagusia izango da elkarbizitzan eta ekitatean oinarritutako lankidetzarako mekanismoak eta ekimenak arautzea.

Hezkuntza Sailak eta Vitoria-Gasteizko Udalak hainbat konpromiso hartzen dituzte euren gain protokolo honen bidez. Konpromiso horiek lankidetzahitzarmen baten bidez garatuko dira:

1. Ikasle guztiak hezkuntzarako aukera berdinak izango dituztela bermatzea.

Aukera-berdintasunak kalitatezko irakaskuntza inplikatzeko du, ikasle guztiak oinarritutako konpetentziak garatzea bermatuko diona, bakoitzaren gaitasunak, ezaugarri fisikoak, sexua, arraza edo gizarte-klasea kontuan izan gabe.

Aukera-berdintasuna eta ekitatean oinarritutako hezkuntza ziurtatzeko, lehenetsun osoa du eskolatzeko-prozesuan behar bezalako eta beharrezko informazioa eta orientazioa dutela bermatzea, eskolatzeko orekatuagoaren alde, herritarrengandik hurbilen dauden zerbitzuekin ahalegin eta elkarlan bateratua eginda.

2. Vitoria-Gasteizko eskola-sisteman kohesio handiagoa eta eskolatzeko orekatua sustatzea

Ikastetxeen osaketa sozialean oreka lortzeko ahaleginak eskola-sistemaren kohesio handiagoa ekarriko du, eta horrek, aldi berean, elkarbizitza, gizarte-inklusioa eta gizarte eta hezkuntza egoera ahulenean dauden kolektiboaren hezkuntza-arrakasta ahalbidetuko ditu.

Hainbat faktorek, hala nola, lurraldearen egitura sozialak, bizitegien banaketak, etxebizitzarako laguntzek, ikastetxeen kokapenak edo biztanleriaren mugikortasun-ereduek, eskatzen dute hezkuntza-eskaintzaren eta -

planifikazioaren politikekin batera tokiko beste politika batzuk ere garatzea udal-erakundeekin lankidetzan.

3. Vitoria-Gasteiz hiri hezitzailean elkarbizitza eta gizarte-kohesioa sustatuko dituen hezkuntza inklusiboa eta kulturartekoa bultzatzea.

Mundu globalizatu eta anitz honetan, eskolak elkartzeko, inklusiorako, begirunea adierazteko eta bakarkako eta taldeko garapenerako lekua izan behar du. Elkarbizitza positiboaren parametroen babesean eskola inklusibo eta kulturarteko bat izateko bidean aurrera egitea gure gizarteak bere gain hartu beharko lukeen eta helburu izan beharko lukeen printzipioa izan behar litzateke. Elkarbizitza eta gizarte-kohesioa sustatzeak kulturarteko harremanetan eta elkarbizitza positiboan oinarritutako gune bat eraikitzea eskatzen du, eskola-inguruneaz haratago, eta ikasleek eta euren familiek hezkuntzaren, jolasaren eta kulturaren arloko jardueretan parte hartzea sustatu behar da, beraz, profil ezberdinekin elkarrenergiteko aukera gehiago izan ditzaten eta gizarte osoaren benetako isla izango den ingurunean txertatu ahal izan daitezen.

4. Vitoria-Gasteizko gizartearen eta hezkuntzaren arloko eragileen eta erakunde publikoen ekintza koordinatua sustatzea, egoera ahulean

Heziketarekin batera orokorragoak eta sektoreartekoak diren politikak eta ekimenak gauzatu behar dira, eta politika eta ekimen horiek ekintza-plan eta akordio bateratuetan zehaztu ahal izango dira, sektorearteko jardunbiderik egokienak sustatzeko eta esku-hartze koordinatuak eta integralak garatzeko.

Ekitate handiagoa lortzen laguntzeak gizarteratzeko eta ekitatean oinarritutako hezkuntzarako laguntza espezifikoak inplementatzea inplikutzen du. Horrez gainera, gizarte egoera ahulenean dauden familiak ingurune edo auzo jakinetan bizi ohi direla kontuan hartuta, ingurune horietara bideratutako esku-hartze integralak planteatu behar dira eta zerbitzuen eta profesionalen (hezitzaileen, gizarte-langileen, terapeuten eta abarren) eta gizarte-erakundeen arteko elkarlana sustatu behar da ikasleen premiei behar bezala antolatuta erantzuteko.

Alde bien interesa da, bai Hezkuntza Sailarena zein Vitoria-Gasteizko Udalarena, harturiko konpromisoak bi erakundeen artean landuko den lankidetzan hitzarmen batean gauzatzea. Uneotan administrazio-izapidetan dagoen hitzarmen horrek jasoko ditu elkarrekin burutu beharreko ekimenak.

Osasuna

OSASUN SAILAK ETA URAK HITZARMEN BAT SINATU DUTE KONTSUMOKO ETA BAINU-LEKUETAKO URAK BABESTEKO EKINTZAK KOORDINATZEKO

- **Bideak ezarriko dira bainu-lekuetan kontaminazio-aldiak gertatuz gero herritarrengana erraz eta eraginkortasunez iritsi dadin informazioa**

Osasun Sailak gaur jakinarazi dio Gobernu Kontseiluari Uraren Euskal Agentziarekin (URA) sinatutako hitzarmena giza kontsumoko eta bainu-lekuetako ur-produkziorako urak babesteko ekintzak koordinatzen direla bermatzeko. Hitzarmen horrek, gainera, ahalbidetu egingo du herritarrei aldian-aldian garrantzizko informazioa ematea uren egoerari buruz, bainu-lekuetan kontaminazio-aldiak gertatuz gero.

Kontsumorako urak babesteari buruzko hitzarmenaren esparruan, hauek dira 2019rako aurreikusitako ekintzak:

- Euskadiko ur-bilketen inbentario bakar bat egitea, dagokien koordenatu geografikoekin, bilketa horiek Osasun Sailaren eta URAREN espedienteetan dagoen informazioarekin lotzeko aukera emango duena.
- Bai Osasun Sailak bai URAK batera parte hartuko dute, dagozkien eskumen-eremuak errespetatuz, Euskadiko barne-arroetako ur-bilketen kontrol analitiko programa bat diseinatzen, burutzen eta ebaluatzen. Uraren Euskal Agentzia arduratuko da laginak hartzeaz eta Osasun Publikoko Laborategia –Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren menpekoa– lagin horiek analizatzeaz. Emaizak elkarrekin batera ebaluatuko dituzte eta, uraren kalitatean intzidentziarik gertatuz gero, koordinatu egingo dira bi erakundeen jardunak.

Kontsumitzailearen iturrira ahalik eta kalitate oneneko ura iristea da ekintza horien guztien helburua, sorburutik jardunez, hau da, xede horretarako bildutako uretik hasita.

Bainu-lekuetako urak babesteari dagokionez, errutinazko kontrol analitikoak koordinatuko dira; lan hori jada egiten da Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzatik hondartzetan eta URATik leku horien eragin-eremuetan. Gainera, azken urteotan kontaminazio-aldi puntualak gertatu izan diren hondartzetako batzuetan azterlan espezifiko bat egingo da, kontaminazio-iturri posibleena, baita hondartzetako eta beren eregin-eremuetako uren analisi mikrobiologikoak eta kimikoak ere, sorburua identifikatzen saiatzeko eta neurriak aplikatzeko, kontaminazio-aldi horiek gutxitze aldera.

Hondartzetako kontaminazio-aldi labur horiei dagokienez, herritarrei informazioa helarazteko modua ere zehaztuko da, bi erakundeen artean eta modu koordinatu batean.

Bai kontsumoko uretan bai bainu-lekuetako uretan, Osasun Sailaren eta URAREN informazio-sistemen integrazioan jardungo da, analisi kimikoen eta mikrobiologikoen informazioa eta emaitzak elektronikoki transferitzeko.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 150.000 EUROKO KONTU-SAILA ONARTU DU AURTENGO EUSKADI LITERATURA SARIAK ANTOLATZEKO

- **Sariek zazpi modalitate izango dituzte eta irabazle bakoitzak 18.000 euroko saria jasoko du; kopuru horri beste 4.000 euro gehituko zaizkio saritutako lanak beste hizkuntza batera itzultzen badira**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 150.000 euroko kontu-saila onartu du, bere gaurko saioan, 2019ko Euskadi Literatura Sariak antolatzeko. Joan den urtean bezala, sariek zazpi modalitate izango dituzte eta irabazle bakoitzak 18.000 euroko saria jasoko du. Diru-kopuru horri beste 4.000 euro gehituko zaizkio saritutako lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzen badira.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak bultzatzen dituen Euskadi Literatura Sariak modalitate hauek dituzte:

- Euskarazko literatura.
- Gaztelaniazko literatura.
- Euskarazko haur eta gazte literatura.
- Euskarazko literatura itzulpena.
- Literatura lanaren ilustrazioa.
- Euskarazko saiakera.
- Gaztelaniazko saiakera.

Modalitate bakoitzeko saridunek 18.000 euro jasoko dituzte. Halaber, saritutako lanen egileek (euskarazko itzulpenaren modalitatean izan ezik) beste 4.000 euro gordin jasoko dituzte, baldin eta saritutako lana jatorrizkoaz bestelako hizkuntza batean argitaratzeko kontratua 2019ko abenduaren 31 baino lehen sinatzen badute.

Iazko Euskadi Literatura Sarietako irabazleak honako hauek izan ziren:

- Euskarazko Literatura: Eider Rodriguez, *Bihotz handiegia*.
- Literatura Gaztelaniaz: Karmelo Caballero Iribarren, *Mientras me alejo*.
- Saiakera Euskaraz: Kepa Altonaga, *Patagoniara Hazparnen barrena*.
- Saiakera Gaztelaniaz: Santos Zunzunegui, *Bajo el Signo de la Melancolía*.
- Euskarazko Haur eta Gazte Literatura: Eider Rodriguez, *Santa Familia*.
- Euskarazko Literatura Itzulpena: Irene Aldasoro, *Gailur Ekaiztsuak* (Emily Brontë).
- Literatura Lanaren Ilustrazioa: Yolanda Mosquera, *La pequeña Roque* (Guy de Maupassant).

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 300.000 EURO BIDERATUKO DITU IKUS-ENTZUNEZKOEN GARAPENA LAGUNTZERA

- **Deialdi honen aurrekontua legealdiaren hasieran hirukoiztu zen; guztira, 2.660.000 euro bideratuko dira zinemagintza sustatzera diru-laguntza irekien bidez**

Eusko Jaurlaritzak 300.000 euroko kontu-saila onartu du, bere gaurko saioan, telebista, zine edota multimedia proiektuen garapena diruz laguntzeko. Deialdi honen helburua da 2019an eta 2020an zehar garatuko diren ekoizpenen prestakuntza eta diseinua sustatzea, produkzio fasearen aurreko operazioetan arreta jarritz. Lerro honekin batera, Eusko Jaurlaritzak beste 2.360.000 euro bideratuko ditu aurten zinemagintza diru-laguntza bidez sustatzera (guztira, 2.660.000 euro), eta horiei gehitu behar zaizkie EiTBk inbertituko dituen 5.000.000 euro baino gehiago.

Zinemagintza sustatzeko diru-laguntzak nabarmen areagotu ziren legealdiaren hasieran, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak % 35 igotzea erabaki zuenean, 2.660.000 euro horietara helduz. Gidoilariaren eta ekoizlearen arteko harremana indartzeko asmoz, proiektuen garapenerako diru-laguntzek garrantzi handiagoa hartu zuten eta aurrekontua hirukoiztea erabaki zen, 300.000 euro horietara ailegatu arte.

Eusko Jaurlaritzaren zinemagintzarako diru-laguntzek sormen prozesu guztia hartzen dute: gidioen sorkuntza, produkzioen garapena eta ikus-entzunezkoen produkzio. Gidoien sorkuntzarako diru-laguntzek 104.000 euroko aurrekontu dute, eta proiektuen garapenera bideraturikoez, aldiz, 300.000 euroko aurrekontua izango dute. Azkenik, 2.260.000 euro bideratuko dira ikus-entzunezkoen ekoizpenera. Diru-laguntza hauei gehitu behar zaizkie EiTBk euskal zinera bideratutako 5 milioi euro horiek, ikus-entzunezko enpresentzako diru-laguntza zuzenak eta Kimuak edota Noka Mentoring bezalako programak babestea helburu dutenak.

Lana eta Justizia

LAN- ETA JUSTIZIA-SAILAK 2019KO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, Lan eta Justiziako sailburuak proposatuta, onartu egin du Lan eta Justizia Sailaren 2019rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Planaren baitan sartzen dira Lan eta Justizia Saileko organo guztientzako diru-laguntzak, eta diruz laguntzeko jarduera-aurreikuspenaren guztizko zenbatekoa 24.000.000 euro da.

Guztira, diruz laguntzeko 22 lerro aurreikusi dira, eta horien artean nabarmentzekoa da doako babes juridikoa finantzatzera zuzendutako laguntzei dagokiena (15.000.000 euro), behar besteko baliabide ekonomikorik ez dutenei babes judizial eraginkorra bermatzeko. Bestalde, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzak aurreikusita dauka laguntzetan 4.500.000 euro ematea laneko kooperatibak eta sozietateak sortu eta garatzeko, gizarte-ekonomiako enpresa eta erakundeen elkarte-egiturak sortu eta finkatzeko, eta enpresa-kudeaketako eredu aurreratuetan elkarlanean aritu eta horietan sartzeko, halaber, Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzaren diru-laguntza jardueraren kopurua 2.350.000 eurokoa da.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren asmoa da helburu orokor hauek gauzatzea:

- 1.- Lan eta Justizia Sailari plangintza-tresna bat ematea bere eskumeneko arloekin lotutako herri-onurako edo gizarte-intereseko jarduerak sustatzea helburu izango duten politika publikoetarako.
- 2.- Ikuspegi ekonomiko-finantzariotik, zehaztea diru-laguntzen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko bidea emango duten kudeaketa-tresnak.
- 3.- Ahalbidetzea jendaurreko informaziorako sarbidea, gardentasunaren eta gobernu egokirako jardunbideen ikuspegitik.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA SU PLAN NORMATIVO PREVISTO PARA ESTE AÑO

- **El Plan será publicado en el portal de transparencia y en el de participación, www.euskadi.eus, para garantizar la información, colaboración y participación de la ciudadanía**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde en su reunión de hoy al Plan Anual Normativo previsto para este año. El Plan recoge las iniciativas normativas (Anteproyectos de Ley y Decretos) que cada uno de los departamentos de Ejecutivo tiene previsto presentar en 2019 para su aprobación en Consejo de Gobierno.

El acuerdo aprobado hoy se enmarca en lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, según la cual el Gobierno Vasco hará público un Plan Anual Normativo que contendrá las iniciativas legales o reglamentarias que vayan a ser elevadas para su aprobación en el año siguiente.

Una vez aprobado, el Plan será publicado en el portal de transparencia y en el de participación, www.euskadi.eus, a efectos de garantizar la información, colaboración y participación necesaria de la ciudadanía.

PLAN ANUAL NORMATIVO 2019

1. LEHENDAKARITZA

- Anteproyecto de Ley de lugares, centros de culto y diversidad religiosa en la CAPV.
- Anteproyecto de Ley de modificación de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres.
- Decreto 12/2019, de 29 de enero, por el que se regulan las becas de formación de jóvenes en el área de Acción Exterior
- Proyecto de Decreto por el que se desarrolla el procedimiento para el reconocimiento y reparación de las víctimas de vulneraciones de derechos humanos, producidas en un contexto de motivación política.
- Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se regula el régimen de prestaciones económicas a centros vascos para atender necesidades asistenciales y situaciones de extrema necesidad de personas pertenecientes a las colectividades vascas en el extranjero.
- Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas a la presentación de Proyectos Tractores de Investigación Europeos, a convocatorias de segunda fase del Programa H2020, liderados por Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.
- Proyecto de Decreto por el que se regula la concesión de ayudas a proyectos de cooperación técnica con regiones de la Red de Socios Estratégicos en el exterior.

- Proyecto de Decreto por el que se crea y regula el reconocimiento institucional Euskadi Basque Country Laguna.
- Proyecto de Decreto por el que se regulan las ayudas a intervenciones humanitarias

2. GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

- Proyecto de Ley de empleo público vasco
- Proyecto de Ley del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general
- Proyecto de Decreto sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi
- Proyecto de Decreto por el que se regula el procedimiento de tramitación del informe de duplicidades en desarrollo del artículo 16 de la Ley 2/ 2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi
- Proyecto de Decreto por el que se regula el Registro de Entidades Locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi
- Proyecto de Decreto por el que se establece la regulación relativa al personal de la Administración Local con la habilitación de carácter nacional.
- Proyecto de Decreto por el que se aprueba el Reglamento de fundaciones del País Vasco
- Proyecto de Decreto de modificación del Decreto 156/ 2016, de 15 de noviembre, sobre obligaciones y derechos del personal cargo público.
- Proyecto de Decreto por el que se aprueba el catálogo actualizado de cargos públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco 2019
